



**2021EKO ABENDUAREN 16KO  
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hamaseian, iluntzeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- ETXEKO LAGUNTZA KONTRATUAREN FIDANTZA ITZULKETA.-**

EULEN Sociosanitarios S.A.k, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren aurreko kontratuaren kontratugileak, fidantzaren itzulketa eskatu du.

Etxeko Laguntzaren Zerbitzua emateko aurreko kontratua 2021eko irailaren 30ean amaitu zen.

Udal zerbitzu teknikoek fidantza itzultzearen aldeko txostena egin dute.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren, osoko bilkurak, aho batez, EULEN Sociosanitarios S.A.ri Etxeko Laguntza zerbitzuaren kontratuaren berme gisa, 14.645,20 €ko abal bidez jarritako behin betiko fidantzaren ezereztatzea baimentzea erabaki du.

**II.- KIROLDEGIKO 5.1 FASEAREN PROIEKTUA, KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-**

Udal honen eskariz Jovino Martinez Sierra Arkitektoak "LAZKAOKO JOXEMIEL BARANDIARAN KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEA GAUZATZEKO PROIEKTUA EGUNERATZEA" proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obrak gauzatzea da.

Proiektu honen aurrekontua 4.338.121,79 €koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du abstentziora joko dutela aurreko osoko bilkuran azaldu zituzten arrazoiengatik, hau da proiektu hau udalerrriaren plan orokorra egin artean atzeratzea eskatzen zutelako.

Hau guztia horrela, eta gaia hirigintza eta ogasun batzordeetan informatua izan delarik, gaia bozketan jarri da eta osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentziaz (EH Bildu), honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Joxemiel Barandiaran Kiroldegiaren handitzeko 5.1 fasearen proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

### III.- HIRILURREN GAINBALIO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-

Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen legediaren inguruan, Konstituzio Auzitegiak berriki eman duen urriaren 26ko 182/2021 epaiak, Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bategindako 107.1, 107.2.a) eta 107.4 artikulua konstituzioaren aurkakoak eta deusezak direla jo ditu.

Horren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araua eman du, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoa dena.

Bertan adierazten da Gipuzkoako Lurralde Historikoan Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duena uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua dela eta epaiak eragin zuzenik ez baldin badu ere, kontuan izan behar dela zerga oinarriaren zehaztapenari dagokionez han jasotzen den erregulazioak baduela antzekotasun handia Toki Ogasunak arautzen dituen Legean (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bateginean) jasotzen den eta konstituzioaren aurkako deklaratu den erregulazioarekin.

Esaten da baita ere: Hori dela eta, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua aidatu beharra dago, zerga oinarria zehazteko erregelak Konstituzio Auzitegiak adierazitakoarekin bat etor daitezten.

Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araua bidez sartu dituen aldaketen artean, sortzapenaren unean lurra duen balioari aplikatu liezaiozkeen urtez urteko gehienezko koefizientak onartu ditu, eta udalak bere koefizienteak onar ditzazke gehienezko muga horrekin, eta onartzen ez baditu gehienezko horiek aplikatu beharko ditu.

Eta beste alde batetik Foru Dekretu-Arauak udalei sei hilabeteko epea eman die beren ordenantza fiskalak araudi berrira egokitzeko.

Hau guztia honela, Lazkaoko Udalak koefiziente eta karga tasa hauek onartzea planteatzen da:



<b>Urteak</b>	<b>Koefizientea</b>	<b>Karga tasa</b>
Urte bete baino gutxiago	0,1400	0,0500
Urte bete	0,1300	0,0500



2 urte	0,1500	0,0500
3 urte	0,1600	0,0600
4 urte	0,1700	0,0700
5 urte	0,1700	0,0900
6 urte	0,1600	0,0900
7 urte	0,1200	0,1300
8 urte	0,1000	0,1500
9 urte	0,0900	0,1500
10 urte	0,0800	0,1500
11 urte	0,0800	0,1500
12 urte	0,0800	0,1500
13 urte	0,0800	0,1500
14 urte	0,1000	0,1500
15 urte	0,1200	0,1500
16 urte	0,1600	0,1500
17 urte	0,2000	0,1300
18 urte	0,2600	0,1000
19 urte	0,3600	0,0900
20 urte	0,4500	0,0800

Gaiaz eztabaidatu ondoren, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedientearen jasotzen den dokumentazioaren arabera hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa, azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araua dioenera egokituz, hasierako izearaz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lan balioduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikoa bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

#### IV.- SASIETA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA.-

Ezkio-Itsasoko udalaren eskaeraren aurrean, Sasieta Mankomunitateko Zuzendari-tzako Batzarrak, 2021eko apirilaren 27an egindako bileran, Sasieta Mankomunitatearen estatutuak aldatzeari hasierako onarpena eman zion.

Aldaketaren hasierako onarpen hau 2021eko maiatzaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (95. zenbakiduna) argitaratu zen.

Beste alde batetik mankomunitatea osatzen duten udal guztiak aurkeztu dute estatutuen aldaketaren hasierako onarpena jendaurreko erakustaldian jarri izanaren ziurtagiria; ez da aurkeztu inolako alegaziorik.



Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutuen aldaketa honen aldeko txostena eman du.

Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2021eko azaroaren 30eko ezohiko bileran, aho batez, onartu du Sasieta Mankomunitatearen estatutuen aldaketa.

Estatutuen aldaketa honen zergatia honako hau da: Auzitegi Gorenaren 1025/2020 epaiak, Ezkio-Itsaso udalerriko Itsaso herrigunea banandu eta udalerrri independente gisa eratzea onartu zuen abenduaren 20ko 27/2016 Foru Dekretua baliogabetzea eta baliorik eta ondoriorik gabe deklaratzeko agindu du. Honen ondorioa da Sasieta Mankomunitatearen estatutuen aldaketaren beharra, hauek sententziak dioenera egokitzeko.

Estatutuen aldaketa honekin hau da aldatzen dena:

Orain arteko testua:

### "1. artikulua. Mankomunitatea eratzea.


Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga udalerriak elkartu egin dira eta borondatezko mankomunitatea eratu dute, elkarrekin obrak ezarri, kudeatu eta gauzatzeko eta zerbitzuak egiteko, eta modu koordinatuan esku hartzeko 7. artikuluan adierazitako xedearen edo jardueraren esparruaren barruan jasotako garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten alderditan."

### "16.3 artikulua. Batzorde Betearazlean lurralde-eremu hauetako ordezkari bana egongo da:

- Ataun, Ordizia, Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio, Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Altzaga, Legorreta, Gaintza, Arama

### "LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

	Biztanleria EIN(2018) / Población INE(2018)	Mankomunitateko ordezkaritza (%)/ Representación en la Mancomunidad (%)	Ordezkariei esleitutako botoak/ Votos atribuidos a los/as representantes	Ordezkariei kopurua/ Número de representantes	Ordezkariei esleitutako botoak/Votos atribuidos a los/as representantes
Altzaga	170	0,245	0,2	1	0,2
Arama	211	0,304	0,3	1	0,3
Ataun	1.687	2,429	2,4	1	2,4
Beasain	13.854	19,947	19,9	2	10,0   9,9
Ezkio	420	0,605	0,6	1	0,6
Gabiria	494	0,711	0,7	1	0,7
Gaintza	127	0,183	0,2	1	0,2
Idiazabal	2.304	3,317	3,3	1	3,3
Itsaso	155	0,223	0,2	1	0,2
Itsasondo	642	0,924	0,9	1	0,9
Lazkao	5.559	8,004	8,0	2	4,0   4,0
Legazpi	8.438	12,149	12,1	2	6,1   6,0



Legorreta	1.433	2,063	2,1	1	2,1
Mutiloa	249	0,359	0,4	1	0,4
Olaberria	949	1,366	1,4	1	1,4
Ordizia	9.998	14,395	14,4	2	7,2   7,2
Ormaiztegi	1.314	1,892	1,9	1	1,9
Segura	1.455	2,095	2,1	1	2,1
Urretxu	6.786	9,770	9,8	2	4,9   4,9
Zaldibia	1.578	2,272	2,3	1	2,3
Zegama	1.535	2,210	2,2	1	2,2
Zerain	248	0,357	0,4	1	0,4
Zumarraga	9.848	14,179	14,2	2	7,1   7,1
<b>Guztira</b>	<b>69.454</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>29</b>	<b>100,0</b>

Aldatutako testua:

**"1. artikulua. Mankomunitatea eratzea.**

Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga udalerrriak elkartu egin dira eta borondatezko mankomunitatea eratu dute, elkarrekin obrak ezarri, kudeatu eta gauzatzeko eta zerbitzuak egiteko, eta modu koordinatuan esku hartzeko 7. artikuluan adierazitako xedearen edo jarduerasparruaren barruan jasotako garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten alderdientan."

**"16.3 artikulua. Batzorde Betearazlean lurralde-eremu hauetako ordezkari bana egongo da:**

- Ataun, Ordizia, Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Alzaga, Legorreta, Gaintza, Arama

**"LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA**

	Biztanleria EIN(2018) / Población INE(2018)	Mankomunitateko ordezkaritza (%) / Representación en la Mancomunidad (%)	Ordezkariei esleitutako botoak/ Votos atribuidos a los/as representantes	Ordezkari kopurua/ Número de representante s	Ordezkariei esleitutako botoak/Votos atribuidos a los/as representantes
Alzaga	170	0,245	0,2	1	0,2
Arama	211	0,304	0,3	1	0,3
Ataun	1.687	2,429	2,4	1	2,4
Beasain	13.854	19,947	19,9	2	10,0   9,9
Ezkio-Itsaso	575	0,828	0,8	1	0,8
Gabiria	494	0,711	0,7	1	0,7
Gaintza	127	0,183	0,2	1	0,2
Idiazabal	2.304	3,317	3,3	1	3,3
Itsasondo	642	0,924	0,9	1	0,9
Lazkao	5.559	8,004	8,0	2	4,0   4,0
Legazpi	8.438	12,149	12,1	2	6,1   6,0
Legorreta	1.433	2,063	2,1	1	2,1



Mutiloa	249	0,359	0,4	1	0,4
Olaberria	949	1,366	1,4	1	1,4
Ordizia	9.998	14,395	14,4	2	7,2   7,2
Ormaiztegi	1.314	1,892	1,9	1	1,9
Segura	1.455	2,095	2,1	1	2,1
Urretxu	6.786	9,770	9,8	2	4,9   4,9
Zaldibia	1.578	2,272	2,3	1	2,3
Zegama	1.535	2,210	2,2	1	2,2
Zerain	248	0,357	0,4	1	0,4
Zumarraga	9.848	14,179	14,2	2	7,1   7,1
<b>Guztira</b>	<b>69.454</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>28</b>	<b>100,0</b>

Hau guztia ikusita, osoko bilkurak, aho batez, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botoarekin, Sasieta mankomunitatearen estatutuen aldaketa hau onartzea erabaki du.

#### V.- 2022KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2022 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpererako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu honek konpromiso kreditu bat barneratzen du, herri antolaketarako egitasmo orokorra egiteko gastuarena. Hau honela, espedientean konpromiso kredituen eranskina jaso da.

Aurrekontu espedientean jasotako dokumentuen artean aurrekontua burutzeko udal araua dago baita ere.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Alkateak aurrekontuaren azalpen orokorra egin du.


Ogasun batzordearen buru den Eneritz Miranda Muxika zinegotziak inbertsioen xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du negozioazio bat izan dela aurten ere baina azkenean ezezkorik ez dutela ikusten beraiek egindako proposamenei eta horri buruz galdetu du. Gehitu du ondorioztatu dutela beraiek proposatutakoak ez duela erantzunik izan. Azkenean esan du horrela ezin dutela aurrekontu hau onartu.

Alkateak erantzun dio esku artean duen idatzi hori dela erantzuna.

Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamena-  
ren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ) eta aurkako sei botoz (EH Bildu) ho-  
nako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- 2022 urterako udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal



elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

### 2022KO UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

#### SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.629.300,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	200.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.829.430,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.630.120,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	15.015,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIOEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA-KO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
<b>SARRERAK GUZTIRA .....</b>			<b>8.304.865,00 €</b>

#### GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.726.650,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	4.494.760,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	20.500,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	724.880,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	100.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.092.075,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	145.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
<b>GASTUAK GUZTIRA .....</b>			<b>8.304.865,00 €</b>

### 2022KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

#### SARRERAK:

IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	17.000,00 €
<b>SARRERAK GUZTIRA .....</b>			<b>17.000,00 €</b>

#### GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	12.500,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	4.500,00 €



GASTUAK GUZTIRA ..... 17.000,00 €

## 2022KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

### SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.629.300,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	200.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.829.430,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.647.120,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	15.015,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA .....			8.321.865,00 €

### GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.726.650,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	4.507.260,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	25.000,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	724.880,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	100.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.092.075,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	145.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
GASTUAK GUZTIRA .....			8.321.865,00 €

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost egun baliodunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

### VI.- 2022KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkeztzen dira bere onarpenerako 2022ko Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, aho batez, onartu egin ditu.





LAZKAOKO  
UDALA

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

